

# Merkataritza Zuzenbide *Chronica*

(Chronicle of Mercantile Law)

SAGASTI AURREKOETXEA, Josu J.

Merkataritza Zuzenbideko doktore irakasle titularra  
Ekonomia eta Enpresaritza Zientzien Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea  
Agirre lehendakariaren etorbidea, 83  
48015 Bilbo  
dmpsaauj@bs.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (1999), 4; 65-72]

## E

konomi- eta enpresa-  
garapenak, honi buruz harturiko  
arautegi-neurriek eta geografi- eta  
lurralde-esparru ezberdinetan  
merkatuen integrazio gero eta  
handiagoak, merkataritza,  
merkataritza edo enpresa-  
errealitatearen ezaguera zehatza  
eta gaurkotua izatea eskatzen  
dute. Era berean, "gune globala"  
izeneko kontzeptuan merkatuen  
aipaturiko integrazioak eta  
Europar Batasunaren printzipio  
iturratzaileen garapenak hurrengo  
honetara behartzen dute, hau da,  
edozein motako berrikuntzak  
–legegintza-ekimenak, arautegi-  
erreformak edo jurisprudenzia-  
erabakiak– egokiro ezagutuak  
izatea, beraien aplikaziorako edo,  
"de lege ferenda" edo arautegi-  
edo jurisprudenzia-integrazio  
izaeraz, eta Merkataritza  
Zuzenbide kontzeptuaren  
edukiaren barnean, elkar  
erlazionaturiko esparru  
ezberdinetan izan ditzaketan  
eraginaren azterketarako.

## E

l desarrollo económico  
y empresarial, las medidas  
normativas adoptadas respecto de  
ello y la cada vez mayor  
integración de los mercados en los  
diferentes ámbitos geográficos o  
territoriales, exigen tener un  
conocimiento exhaustivo y  
actualizado de la realidad  
comercial, mercantil o empresarial.  
Del mismo modo, la antedicha  
integración de mercados en el  
denominado concepto de "aldea  
global" y el desarrollo de los  
principios configuradores de la  
Unión Europea, obligan a que las  
novedades de todo tipo –iniciativas  
legislativas, reformas normativas o  
decisiones jurisprudenciales– sean  
convenientemente conocidas, en  
orden a su aplicación, o al examen  
de los efectos que, "de lege  
ferenda" o de integración normativa  
o jurisprudencial, puedan  
presentar, dentro del contenido del  
concepto de Derecho Mercantil, en  
los diferentes ámbitos  
interrelacionados.

## Z

e développement  
économique et commercial, les  
mesures normatives adoptées à  
cet effet et l'intégration, de plus en  
plus importante, des marchés  
dans les différents milieux  
géographiques ou territoriaux  
exigent une connaissance  
exhaustive et actualisée de la  
réalité commerciale, économique  
et des entreprises. De même,  
cette intégration des marchés  
dans ce que l'on appelle la "ville  
globale" et le développement des  
principes configurateurs de l'Union  
Européenne, obligent à ce que  
toutes les nouveautés –initiatives  
legislatives, réformes des  
réglementations ou décisions de  
jurisprudence– soient dûment  
connues, en accord avec leur  
application ou avec l'examen des  
effets qu'ils puissent, "de lege  
ferenda" ou d'intégration des  
règlements ou jurisprudentielle,  
dans le concept du Droit  
Commercial, présenter dans les  
différents domaines reliés entre  
eux.



---

1. Jendeari eman behar zaion informazioa mugaz kanpoko inbertsio eskarian eta jaulkitzaile atzerritarra kotizazioan onartua izateko: *IOSCO*ren txostena. 2. Zut murrizketei<sup>1</sup> buruzko Liburu Berdearen ondoriozko Europar Batzordearen Adierazpena. 3. Antitrust erregimen berria Alemanian. 4. Aurrezki publikoarekiko deiaeren definizio berria Frantzian. 5. Pariseko Apelazio Auzitegiaren Epaia Elkarte Anonimoaren Administrazio Kontseiluko lehendakariaren kentzeari buruz.

---

## 1. Jendeari eman behar zaion informazioa mugaz kanpoko inbertsio eskarian eta jaulkitzaile atzerritarra kotizazioan onartua izateko: *IOSCO*ren txostena

*Balore Batzordeen Nazioarteko Erakundeak – International Organization of Securities Commissions [IOSCO]–*, hau da, balore higigarrien merkatuetako kontrol agintariak batzen dituen Erakundeak, mugaz kanpoko inbertsioa eskatzen duten jaulkitzaileek zein beren titulu propioak merkatu atzerritar batean kotizatzen onartzea eskatzen duten jaulkitzaileek, kontabilitate izaera ez duten informazioei buruz argitaratu behar duten agiria onartu du: *IOSCO, International Disclosure Standards for Cross-border Offerings and Initial Listings by Foreign Issuer*.

Agiriak helburu bikoitza lortu nahi du; alde batetik, aipaturiko nazioarteko eskariak eta kotizaziorako onartzeak erraztu, eta, bestetik, inbertitzaileen babes bermatu. Helburu hauetarako, *IOSCO*k, aipaturiko eragiketak burutuko liratekeen bakoitzean argitaratu beharko liratekeen informazioei buruzko arauak garatea garrantzitsutzat hartzen du, horrela informazio guztia nazioarteko esparruan erabilgarria den agiri bakar batean bilduz eta jaulkitzailearen jatorrizko Estatuko agintariaren onartzearekin lotuz. Agirian bertan, kontabilitate izaera duen informazioa eta, beraz, nazioarteko kontabilitate oinarrien garapenari dagokion problematika konplexua, inola ere ez dela kontuan hartuko azpimarratzen da. Halaber, txostenak, espresuki, bat-egite eta lortzeko eskaintza publikoei dagozkien informazioak, besteak beste, ez dituela objektutzat izango adierazten du. Azkenik, jarraipen-izaerazko jendearekiko informazioa eta kotizaziora onartzeko jaulkitzaileek bete beharko lituzketen betebeharrak ere agiriaren edukitik kanpo geratzen dira.

Agiriak informazio egokitasun eta gardentasun oinarri orokorrak, bai eta argitaratu behar diren informazio nabarmenei buruzko zerrenda bat ezartzen du. Lehenengoei dagokienez, bereziki, hurrengo hau azpimarratzen da, hau da, inbertitzaileen erabakietarako nabarmena edo garrantzizkoa izan daitekeen informazio guztia jakinarazia izatea; prospektuaren argitarapen eta eragiketaren bitarteko epealdian ager daitezkeen berri gertagarriak egokiro argitaratuak izatea eta inbertitzaileentzat nabarmena izan daitekeen informazio guztia, Estatu batean argitaraturikoa, beste Estatuan ere argitaratua izatea, nahiz eta Estatu honen arautegiak horrelakorik ez eskatu.

“ Agiriak helburu bikoitza lortu nahi du; alde batetik, aipaturiko nazioarteko eskariak eta kotizaziorako onartzeak erraztu, eta, bestetik, inbertitzaileen babes bermatu. ”

Argitaratu behar diren informazioei dagokienez, agiriak xehetasun handiko zerrenda adierazten du. Lehenengo eta behin, informazioa, administratzaile, lehenengo mailako buruzagi, aholkulari –bai legezko, bai finantzazko– eta auditoreen identitateari dagokio. Era berean, eragiketei buruzko izaera tekniko duen informazioa argitaratu beharko da eta, bereziki, eragiketa betetzeko aurrez ikusitako denbora programa eta eskaintako tituluen kopuruari buruzko datuak, eskaintza prezioa edo berau zehazteko modua.

Agiriak “informazio gakoak” ere ezartzen ditu, hau da, azken bost urteko jaulkitzailearen bilakaera ekonomiko-finantzarioari eta ondare

---

1. “Murrizketa bertikalei”.

funtsari dagozkien garrantzi handieneko informazioak; kapitalkuntza eta zorpetzeari dagozkien gaurkoturiko informazioak; eskaintzaren zergatiak eta funtsen helburua objektutzat duten informazioak eta arrisku-faktoreak.

Argitaratu behar diren gainerako informazioak jaulkitzailearen gai ezberdinei dagozkie, bakoitza xehetasun handiaz adieraziz: identifikazio datuak, arestiko istorio eta garapena –ezohiko finantza eragiketak bereziki aipatuz–, garaturiko jarduera eta egitura eratzailera. Beraz, agiriak, Elkartek azken ekitaldietan izan duen bilakaera eta etorkizuneko aurreikuspenen azterketa zehatza aurrez ikusten du.

Beste informazio mota batzuk, xehetasun handiaz ere, administratzaile eta buruzagi seniorrari dagozkie. Horrela, bakoitzaren *curriculum*-ari dagozkien informazioez gain, hurrengo hauek argitaratu beharko lirakeke: halako pertsona eta beste administratzaile edo buruzagi batzuren arteko senidetasun harremanak edo garrantzizko edozein akziodun, bezero, hornitzaile edo beste pertsona batekin beraiek izan ditzaketen akordioak, zeinen bitartez haiek halako maila edo posizioa lortzen baitute. Halaber, hurrengo informazio hauek ere argitaratu beharko dira, hau da, beraiek duten ordaina, beraietariko bakoitzak Administrazio Kontseiluan edo beste organo batzuetan –Auditoria Batzordeak, esate baterako– dituzten karguak eta akziodun gisa izan dezaketen maila. Azkenik, eta gehigarri gisa, lanari dagozkien beste datu batzuei buruzko informazioak ere argitaratu behar dira.

Agiriak garrantzizko akziodunei dagozkien informazioen argitarapena ere aurrez ikusten du. Kontabilitate informazioari dagokionez, beronen edukian sakondu gabe, *IOSCO* txostenak agiri berezi batzuren argitarapena ere adierazten du. Horrela, besteak beste, eskaintza edo kotizaziorako onartzeari dagozkien informazioak –eskaintza prezioa eta beronen zehaztapena, eskaintzaren edukia diren arestiko finantza-tresnen bilakaera eta beste batzuk jasotako izenpetze obligazio edo konpromezuari buruzko informazioa, esate baterako– eta “gehigarrizko” beste informazio batzuk –elkarte kapitalaren eraketa eta Elkartearen Estatutuak, besteak beste– argitaratu beharko dira.

Azken batean, txostenaren eduki eta erregimenetik gardentasun eta segurtasun ezaugarriak nabarraraz daitezke. Txostenak ezartzen duen erregimen zehatzak nazioarteko

inbertsio eta balore merkatuetako egoera segurtasunez eta argitasunez hornitzen ditu, hau beharrezkoa izanik Europar Batasunaren esparruan harremanak eta negozioak burutzeko, horrela erakunde honek helburuak betetzeko ere benetakoa izateko. Inbertitzaileen alde ezartzen diren informazio eskubide eta obligazioak beraien babesa edozein Estatuan eta egoeran segurtatzen du. Beraz, txosten hau Estatuz kanpoko inbertsioak bultzatu eta sendatzeko tresna baliogarria bilakatu da.

## 2. Zut murrizketei<sup>2</sup> buruzko Liburu Berdearen ondoriozko Europar Batzordearen Adierazpena

Zut murrizketei europar konkurrentzia arauen aplikazioari buruzko Europar Batzordearen Adierazpena argitaratu da<sup>3</sup>. Adierazpena, zut murrizketei buruzko Batzordearen Liburu Berdearen ondoren sortu da. Liburu honetan zut murrizketen mailan edo esparruan europar politikak zituen mugak nabarian ipintzen ziren eta, bereziki, hurrengo hauek: gaur egungo salbuespen Erregelamenduak irizpide erabat hertsia eta gehienbat formal izaerazkoetan oinarritzen direla; mailazko salbuespenen aplikazio esparruko erabaketan, normalean, benetako arrisku honek irauten duela, hau da, Batzordeak salbuespena konkurrentzia faltsutzen duten erabakiei ematea, eta, azkenik, gaur egungo mailazko salbuespen Erregelamenduak azken ondasunen birsalmenta kontuan hartzen duten zut erabakiak baino ez dituela arautzen, baina ez bitarteko ondasun edo zerbitzuena. Batzordeak, hiru hutsune edo gabezia hauei erremedioa ipintzeko eta konkurrentzia behar den bezala babesteko, ekonomia izaerazko irizpideak nagusi diren balioespena beharrezkoa dela uste du.

Batzordearen Adierazpena, gaur egungo politikaren gabezien berria ematen duen lehen atalaz gain, beste bost ataletan egituratzen da: Liburu Berdeari buruz Batzordeak jasotako iruzkinen laburpena –II Atala–, zut murrizketa eta berauen ondorioei buruzko ekonomia balioespena –III Atala–, salbuespen Erregelamendura loturiko eta ez loturiko erabakien artean bereizteko merkatu kuoten zentzuan definituriko gaiei buruzko arazoaren azterketa –IV Atala–, proposaturiko politika berriaren azalpena –V Atala– eta, azkenik, aipaturiko politikak burutzeko bete behar diren erabideak –VI Atala–.

2. “Murrizketa bertikalei”.

3. Europar Elkarteen Egunkari Ofiziala, C 365, 1998ko azaroaren 26koa, 3. orrialdea.



“ ... zut murrizketen balioespenerako baliogarriak edo erabilgarriak izan daitezkeen arau orokor batzuk aipatzen ditu. ”

II Atalari dagokionez –Liburu Berdeari buruzko Iruzkinen Laburpena–, azken datu bezala, hurrengo hau nabarraraz daiteke, hau da, Liburu Berdeari buruz egindako iruzkin edo kritikek hondozko nolabaiteko homogenotasun bat dutela. Kontzentzuzko lehenengo elementu batek, zut murrizketen esparruan Batzordearen gaur egungo politikaren aldarazketaren premia nabarrarazten du. Era berean, ekonomia azterketa berrienak aipatzen dira, zeintzuen arabera zut murrizketek konkurrentziarako arriskua kasu bakar batean baino ez baitutela adierazten, hau da, merkatuko nolabaiteko mailako boterearekin loturik daudenean. Kontzentzuzko azkenengo elementuak, zut murrizketen balioespen mailan merkatuen integrazioa lehenetsuzko helburutzat hartu behar dela finkatzen du.

Adierazpenaren zati handi bat zut murrizketen ekonomia azterketaz arduratzen da –III Atala–. Horrela, lehenik, zut murrizketen esparruko oinarriko printzipio batzuk agerian ipintzen dira. Zentzu honetan, eta hertsiki ekonomia ikuspuntutik, zut murrizketek konkurrentziaren esparruan arazoak kasu berezietan baino ez dituztela sortzen adierazten da, hau da, merkatuen arteko konkurrentzia nahikoa ez denean edo merkatuko nolabaiteko boterea dagoenean. Orokorrean, beraz, zentzu ertain batetan, konkurrentziarako murrizketa horizontalak zut murrizketak baino kaltegarriagoak direla aipatzen da. Adierazitako oinarriak ezarri ondoren, Batzordearen Adierazpena zut murrizketen alde eta kontrako ondorioen azterketaz arduratzen da.

*Zut murrizketen aldeko eraginei buruz,* Batzordearen Adierazpenak garrantzi handieneko argudioak laburbiltzen ditu. Horrela, kasu batzuetan eta baldintza batzuk burutuz, ohiko zut kontratazioek –ekoizle eta merkatarien artekoek–

merkatuan ia hobezinezko mailako inbertsioak eta salmentak sortarazten dituztela aipatzen da.

*Kontrako eragin edo ondorioei dagokienez,* Adierazpenean konkurrentziaren kontrako zut akordioetatik jario daitezkeen lau eragin mota zerrendatzen dira, Europar Zuzenbideak ekidin nahi dituenak. Aipaturiko lau eragin hauek hurrengoak dira: merkatuaren itxiera, bai beste hornitzaile bai beste lortzaile batzuekiko; kontsumitzaileei eskainitako baldintzen narriadura; zut murrizketek eragindako hornitzaile edo lortzaileen arteko kalteak; merkatuen integrazioaren kontrako oztopoen sortzea, zeintzuen artean hurrengo hau nabarrarazi baitaiteke, europar kontsumitzaileek, berauek aukeraturiko Estatu kidean, ondasunak edo zerbitzuak lortzeko dituzten askatasunaren mugak. Halako kontrako eraginei buruz, Batzordeak izaera ezberdinetako akordioak egon daitezkeela azpimarratzen du, baina, edozein kasutan, konkurrentziaren kontra eragin berdinak sortarazten dituztenak. Zentzu honetan, eta azterketa zehatzago bat burutuz, Adierazpenean lau zut murrizketa maila bereizten dira –banaketa eskusiboa, merkatu eskusiba, birsalmenta prezioen gainezartze eta merkatuen banatze edo zatitze– eta bakoitzak konkurrentziarekiko dituen kontrako eraginak aztertzen dira. Azken aipamen bat zut murrizketen konbinaketetatik sorturiko eraginei buruz egiten da. Horrela, kasu batzuetan, halako konbinaketek murrizketa bakoitzak, berak soilik, sor ditzakeen kontrako eraginak gaizkoatu ditzakeela adierazten da, eta beste kasu batzuetan, aldiz, konbinaketak faboragarriak izan daitezkeela ezartzen da, murrizketa baten eraginek beste baten kontrako eraginak muga ditzaketelako.

Zut akordioen eraginei buruzko aipamenak kontuan harturik, Batzordeak, konkurrentziaren politikaren ikuspuntutik, zut murrizketen balioespenerako baliogarriak edo erabilgarriak izan daitezkeen arau orokor batzuk aipatzen ditu. Horrela, lehenik, merkatuen artean konkurrentzia mugatzen duten zut murrizketak, konkurrentzia merkatu berezi baten barnean mugatzen dutenak baino kaltegarriagoak, oro har, direla baieztatzen da. Honen arabera, eta bigarren arau orokor gisa, hurrengoak ondoriozta daiteke, eskusiba akordioak konkurrentziarentzat beste akordio mota batzuk baino kaltegarriagoak direla. Azkenik, hirugarren arau orokor bat nabarrarazten da, hau da, zut murrizketek izan ditzaketen kontrako eraginak, merkatuan gero eta hornitzaile gehiagok erosle edo lortzaileekiko harremanetan zut murrizketa berezi bat erabiltzen dutenean indartzen direla –metatuzko eraginak–.

IV Atala, merkatu kuoten zentzuan garrantzia duten gaien definizioari dagokio. Lehenik, Batzordea hurrengo honetaz konturatzten da, hau da, gaur egungo mailazko salbuespen sistema edo ereduak *legezko planteamendua*

jarraitzen duela, klausulen baiospenean oinarrituz, zeinen arabera salbuespenak enpresa guztiei ematen baitzaizkie, berauetariko bakoitzaren boterea merkatuen edozein delarik ere. Sistema edo eredu honen aurrean, eta buruturiko ekonomia balioespenetan oinarrituz, Batzordeak izaera orokorreko bi aipamen adieraz daitezkeela baieztatzen du. Lehenengo eta behin, merkatuan botere egoera bat egon ezean eta murrizketa bereziki kaltegarri batzuk salbuetsiz, zut murrizketei legezkotasun ustea aplikatu ahal zaie; bigarrenik, merkatuan nolabaiteko botere joera dagoenean, halako legezkotasun ustea ez da posiblea. Aipamen hauetatik, Batzordeak, mailazko salbuespen Erregelamenduen aplikazio esparrua zehazteko merkatu kuoten erabilera justifikaturik dagoela adierazten du. Bestalde, gaur egun indarrean dagoen mailazko salbuespenen aplikazio esparruaren definizio edo zehaztasunak duen arazoari dagokionez, Batzordeak politika egokiago bat burutu behar dela adierazten du, honetarako bideak edo moduak aipatuz. Horrela, bide edo moduetariko bat, gaur egungo mailazko salbuespenak, zerbitzu, bitarteko produktu, alde aurretiko eraldaketaz birsalmetara bideraturiko produktu eta banaketa hautakorrera zabaltzea edo hedatzea izango litzateke. Bestalde, gaur egungo "klausula zuri" zerrendan oinarrituriko norabideak "kontrako klausula" zerrendan oinarrituriko sistemarekin iraungo balu, Batzordeak, segurtasun juridikoa enpresa kopuru handiagoari eskaintzea posible izan daitekeela baieztatzen du. Aipaturiko aldarazketak burutzeko asmoz, Adierazpenak prodezura izaerazko aldarazketak, bai eta arau edo pintzipio aldarazketak ere proposatzen ditu. Zentzu honetan, bereziki, fakturazio kuoten kalkulurako sistema edo era aldatzea eskatzen du eta Estatu kide bakoitzeko agintari edo epaileek europar konkurrentzia arauak era deserdiratuan aplikatzea.

Beraz, ondorio gisa, Batzordeak proposaturiko politikaren ezaugarri

“ **Europar Batasuneko Konkurrentzia Zuzenbidearentzat zut murrizketak oztupo handiak dira.** ”



garrantzitsuenak –V Atala– hurrengo hauek dira: a) Eduki handiagoko eta zut murrizketa guztiei aplikagarria izan dakiekeen mailazko salbuespen Erregelamendu bakar bat sortu eta ezartzea. b) Salbuespen Erregelamendua “kontrako klausula” zerrendan oinarriturik lantzea. c) “Segurtasun esparru” bat sortzea, zilegiak uste diren akordio eta banakako azterketa beharko luketen akordioen artean bereizteko. d) “Laguntza neurri” batzuren hartzea eta, e) Deserdirapen handiago bat aurrez ikustea.

Europar Batasuneko Konkurrentzia Zuzenbidearentzat zut murrizketak oztupo handiak dira eta benetako edo egitezko konkurrentzia askatasuna mugatzen dute. Hau kontuan harturik, bai eta kasu batzuetan murrizketa horiek izan ditzaketen aldeko eragin edo ondorioak, Europar Batzordeak, aipaturiko murrizketei buruz azterketa zehatz eta sakon bat egiten du. Beraz, egoera ezberdinak eta bakoitzak izan ditzakeen ondorioak aztertuz, proposamen berezi batzuk eskaintzen ditu merkatua hobe daitekeela uste duen kasuetan. Batzordearen Adierazpenak merkatu eta zut murrizketen azterketa osotasunean egiten du eta hau da bere abantaila garrantzitsuenetariko bat, horrela ikerketak Europar Batasuneko Estatu Kide guztien egoera aztertzen duelako eta egiten dituen proposamenak ere Estatu Kide guztietan erabilgarriak izan daitezkeelako. Bestalde, era berean, Adierazpenaren muga ere nabarrarazi behar da. Zentzu honetan, Europar Batasuneko arautegiak adierazten duenez, Adierazpenak ez du izaera lotgarririk; beraz, bere azterketa eta proposamenek ez dute bestelako baliorik, beste arau mota batean ezartzen ez diren bitartean, hau da, Erregelamenduan edo Jarraibidean. Hala eta guztiz ere, Adierazpenak egiten duen azterketak eta eskaintzen dituen proposamenek konkurrentzia merkatua, beronen osotasunean, ikertu eta zut murrizketen arazoa konpontzeko lehen urratsa finkatu dute.

### 3. Antitrust erregimen berria Alemanian

1999ko urtarrilaren 1ean, Alemaniako *antitrust* erregimen berria, 1957ko *Gesetz gegen Wettbewerbsbeschränkungen* araua sakontasunez aldarazten duena, indarrean sartu zen. Zentzu honetan, nahiz eta konkurrentziari dagokion erregimena osotasunean aldatu, garrantzi handieneko aldarazketa “kontzentrazio edo bilketaren” esparruan burutu da, zeinen definizioa bera ere aldatu baita.

Prozedura gaiei dagokienez, orain arte indarrean egon den legeak kontzentrazio aurretik eta kontzentrazio ondoren burutu behar diren notifikazioen artean bereizten zuen bitartean,

erregimen berriak notifikazio bakar bat baino ez du ezartzen, hau da, kontzentrazio aurretik bete behar dena. Eragiketa hurrengo kasu honetan jakinarazi behar da, aurreko urtean enpresa guztien munduko fakturazioa bilduz, berau, osotasunean, 1.000 milioi marko alemaniar baino handiagoa denean eta kontzentrazioan parte hartzen duten enpresetariko batean, gutxienez, nazioko edo estatuko fakturazioa 50 milioi alemaniar marko baino handiagoa denean.

Bestalde, kontzentrazioaren kontrolari buruzko xedapenak ez zaizkie neurri txikiagoa izango duten eragiketei aplikatuko. Era berean, kontzentrazio kontrol arauak ez dira hurrengo kasu honetan ere aplikatuko, hau da, eragiketak, ondasunak edo zerbitzuak bost urtetan, gutxienez, eskaintzen diren merkatuan burutzen direnean eta salmenten zenbatasuna 30 milioi marko alemaniar baino txikiagoa denean. Legeria berriaren arabera, neurri txikiagoa duten kontzentrazioak *Bundeskartellamt* erakundeari jakinarazi behar da zaizkio, nahiz eta honek beto edo kontrakotasun eskubide edo ahalmenik ez izan.

Orain arteko erregimenaren arabera, eragiketa aurretik notifikaziora loturik zeuden kontzentrazioak ezin ziren *Bundeskartellamt* erakundeak onartu baino lehenago edo estatuko kontrol agintarietara finkaturiko epealdiaren epemuga arte burutu. Lege berriak, aldiz, *Bundeskartellamt* erakundeak, kasu batzuetan, halako epealdiak ez betetzea salbuetsi dezakeela adierazten du.

Bestalde, kontzentrazioen balioespen gehienek aldarazketarik izan ez duten bitartean, aldarazketa batzuek prozedurazko gaietan burutu dira, bai *Bundeskartellamt* erakundeak bete behar duen prozedura egituran, bai erakunde honen erabakien jardespen posibilitatean.

Era berean, akordioen erregimenean egin diren aldarazketak funtsezkoak baino formalagoak dira. Horrela, salbuespenei dagokionez, debekutik salbuetsirik dauden kartel mota berezi batzuk adierazten dira eta, beste batzuetan, salbuespena, Europar Batasuneko Hitzarmeneko 85.3 artikulua adierazten dituen bezalako betebeharrak burutzen direnean aplikatuko dela baieztatzen da.

Erregimen berriak, kartelak burutzeko debeku salbuespena jasotzen zuen merkataritza eta industri sektore kopurua gutxitu egin du. Honen ondorioz, debekuak sektore batzuetan irauten du –nekazaritza, kreditu eta aseguru jardueretan– eta beste batzuetan ezabatua izan da –energia elektrikoa eta gasarenean–.

Azkenik, erregimen berriak, orain arteko legeriak ezarritako abusu kasu berezietan gain, meneratzaile egoeraren abusuarekiko debeku

“ ... garrantzi handieneko aldarazketa “kontzentrazio edo bilketaren” esparruan burutu da...”

orokor bat ezarri du, merkatu osoan erabilgarri eta aplikagarria izango dena. Lege berriak, beraz, Konkurrentzia Zuzenbidearen esparruan, eta, bereziki, *antitrust* gaian, zegoen legeria gaurkotu egin du eta eskakizun berrietara moldatu, zeuden formaltasunak beharrezkoak direnara gutxituz. Egokitasun honek alemaniar legeria Europar Batasuneko legerira hurbiltzen du, beronen irizpideak eta betebeharrak barne legerira eramanez.

#### 4. Aurrezki publikoarekiko deiaren definizio berria Frantzian

1998ko uztailaren 2ko 98-546 Legeak aurrezki publikoarekiko deiaren definizio berri bat ezartzen du, aurreko 1996ko uztailaren 24ko Legearen 72 artikulua sortu zituen doktrina eta jurisprudentzia eztabaidak konpontzeko asmoz. Definizio berri honek aurrezki publikoarekiko deiaren esparruan sartzeko diren eragiketak zeintzuk diren zehaztasunez adierazten du eta, era berean, kontzeptuaren edukitik kanpo geratzen direnak ere bai. Berezi, Lege berriak, aurrezki publikoarekiko deia, finantza-tresnen arauturiko merkatuan negoziatzera onartze jardueran datza. Aipaturiko finantza-tresnak, besteak beste, hurrengo hauek dira: kapitala ordezkatzeko duten tituluak, kreditu tituluak, inbertsio funtsetako kuota edo akzioak eta muga finantza-tresnak. Era berean, definizio berriaren edukian ere hurrengo jarduerak hauek sartzen dira, hau da, halako finantza-tresnak publiko edo jendearen artean jaulkatea edo lagatzea. Bestalde, finantza-tresnen jaulkatea edo lagatzea erakundeetako inbertsore kualifikatuen artean edo inbertsore esparru mugatu batean egiten denean, jarduerak horiek ez dira aurrezki publikoarekiko deiaren operazioetan sartzen, aipaturiko inbertsoreak beren kontu propioan aritzen baldin badira. Honi buruz eta garapenezko arau gisa, 1998ko urriaren 1eko 98-880 Dekretuak

erakundezko inbertsore kualifikatuen zerrenda adierazi du.

Beste garapenezko arau bat ere –1967ko irailaren 28ko Agindua– aldatua izan da Lege berriaren ondorioz. Agindu honen 6. artikulua erduki berriaren arabera, aurrezki publikoarekiko dei eragiketaren bat burutu nahi izango lukeen edozein pertsonak, publiko edo jendearekiko agiri bat prestatu eta argitaratu beharko du. Agiri informagarriaren edukia eta hedapen erak Burtsako Eragiketen Batzordeak –COB<sup>4</sup>– ezarritako erregelamendu batek finkatu beharko ditu.

COB erakundearen irizpidea jarraituz, gaur egungo aurrezki publikoarekiko deiaren definizioak gai honen aplikazio esparruaren hedapena du ondorioztat eta “aurrezki publikoarekiko dei eragiketa” eta “aurrezki publikoarekiko dei egiten duten jaulkitzaileen” artean garrantzi handiko bereizketa ezartzen du. Beraz, “aurrezki publikoarekiko dei eragiketak” burutzeak baino ez du erregimen honetara loturik ez dauden titulu jaulkitzaileen egoera aldatuko, hauek “aurrezki publikoarekiko dei egiten duten subjektuen” artean ezarriz. Horregatik, beharrezkoa izango da ere COB erakundeak egoera hau arautzea, erregimen aldaketa edo bihurtze baldintzak finkatuz. Zentzu honetan, COB erakundeak hiru kasu kontuan hartuko direla adierazten du: araturiko merkatuan tituluen negoziaketa gelditzen denean; aurrezki publikoarekiko dei eragiketa bukatzerakoan eta ezarrieraren bukatzetik urtebete iragan ondoren, ezarri gabe geratu diren tituluak ehun inbertsore baino gutxiagoen artean banatzen direnean eta, azkenik, Elkartek aurrezki publikoarekiko dei eragiketa, egitez, burutu ez lukeenean.

Frantziako Balore Merkatuan sortu den Lege berriak aldaketa sakon eta garrantzitsua du, “aurrezki publikoarekiko dei” kontzeptua aldatzen delako, bere edukia hedatuz eta honen esparruan egoera berriak sartuz. Bestalde, definizioaren garrantzia edo eragina, nahiz eta Frantziar burutu, gainerako Estatuetako elkarteetara ere zabaltzen da, hauek Frantziako Balore Merkatuetan kotizatza onartuak izatea nahi baldin badute, legeri berriaren xedapenak bete beharko dituztelako. Beraz, lege aldarazketa honek beronen eragina, era zuzenean, Frantziatik kanpo ere izango du, baina beste zeharkako eragin bat ere izan dezake, gainerako Estatuek, eduki berri hau kontuan harturik, beren legeriak zentzu berean aldatzea erabaki dezaketelako.

## 5. Pariseko Apelazio Auzitegiaren Epaia Elkarte Anonimoaren Administrazio Kontseiluko lehendakariaren kentzeari buruz

1966ko uztailaren 24ko Merkataritza Elkarteei buruzko 66-537 Legearen 110 artikulua hurrengo hau adierazten du, hau da, Elkarte Anonimo baten Administrazio Kontseiluak beronen lehendakaria edozein unetan ken dezakeela<sup>5</sup>. Hala eta guztiz ere, oso ondo sendaturiko jurisprudentziaren arabera, kentze bat abusuzkoa dela adieraz daiteke eta, ondorioz, kalte-galeren ordaina sortaraz dezake, kentzea burutzerakoan eta, bereziki, burutze moduak, administratzailearen ohoreari kalteren bat sort diezaiokenean edo kentzea bat-batean erabakitzen denean, kontraesanezko oinarri edo printzipioa errespetatu gabe.

Pariseko Apelazio Auzitegiak, norabide hau jarraituz, 1998ko irailaren 4an emandako Epaian, premiatasun prozeduraren bitartez bilaraziriko kontseiluak erabakitako Elkarte Anonimo baten Administrazio Kontseiluko lehendakariaren kentzea abusuzkoa dela adierazi du. Auzitegiak zentzu honetan epaia oinarritzeko hurrengo arrazoi edo zergati hauek finkatu ditu: deialdiaren premiatasuna justifika zezakeen errua ez zitzaiala interesdunari jakinarazi eta, beraz, honek ezin izan zuela inolako erantzunik eman edo prestatu; kentzearen bat-batekotasunak lehendakariaren ohore eta ospe profesionalari kaltea sortu diela eta, azkenik, larritasun berezia zukeen erruak baino ez zukeela halako urdurikeria justifikatuko.

Bestalde, epaiaren zegarti edo arrazoietatik hurrengo hau ondoriozta daiteke, hau da, premiatasun prozeduraren bitartez buruturiko administratzailearen kentzea, larritasun bereziko erruan oinarrituko balitz, ez dela abusuzkoa balitz bezala hartuko. Hala eta guztiz ere, errua larria denean, egoera hau, kentzea burutu baino lehenago, administratzaile interesdunari jakinarazi beharko zaio, berak uste dituen azalpenak eman edo aurkez ditzan. Edozein kasutan, premiazko kentzea justifika dezaketen egoeren balioespena egitezko arazo edo gaia da. Zentzu honetan, administratzaileen arteko edo administratzaile eta akziodunen arteko eztabaida edo ideia urrunketa gogor bat administratzailearen premiazko kentzea justifika dezakeen garrantzizko zergati bat izan daiteke. Auzitegiak, era berean, kentzearen premiatasuna bera administratzailearen ohore eta

4. COB: Commission des Opérations de Bourse.

5. 110 Artikulua.- Administrazio Kontseiluak, beronen kideen artean, lehendakari bat aukeratuko du, nor, izendapenaren nulutasun zigorpean, pertsona fisikoa izango baita. Hark ere honen ordainketa finkatuko du.



ospe profesionalari egindako kaltearen kausa edo zergatia dela baieztatzen du. Horrela, kentzearen arintasun edo azkartasunak, egitez, administratzailearen zintzotasun edo gaitasunari buruzko hirugarrenen susmoa sort dezake. Era berean, kentzeak abusuzko izaera duela erabakitzen duten epaileek ezin izango dute kentzearen zergatiei buruz inolako adierazpen edo balioespenik egin; haiek kentzearen izaera eta berau burutua izan den modua baino ez dute kontuan hartuko. Hala eta guztiz ere, jurisprudentziaren azterketa zehatzak hurrengo hau adierazten du, hau da, administratzaile batek buruturiko larritasun bereziko errua dagoenean, Auzitegiek erru hau, inplizituki, kontuan hartzen dutela kentzearen bat-batekotasunak kalte galeren ordaina sort dezakeen ala ez erabakitzeko.

honen kontrako xedapenik ez onartuz, egitez, mugaturik geratzen da, horretarako gutxienezko portaera bat eskatuz. Epaia Administrazio Kontseiluaren ahalmen absolutua nolabaiteko kontrolpean ezartzen du. Hala eta guztiz ere, epai hau Apelazio Auzitegi batek emandako erabakia da eta itxaron egin beharko da ikusteko zein den Auzitegi Gorenak kasu honetan duen iritzia, apelazio epaiarena baieztatuz edo kontraerabakiz.

**“ Epaia honetan, Legeak Administrazio Kontseiluari, beronen erakuntzari buruz, ematen dizkion ahalmen osoak eta zabalak, ia mugagabeak, mugatuak geratzen dira.**

”

Beraz, ondorio gisa, Frantzian, legeriaren garapenak Auzitegien jurisprudentziaren bitartez, garrantzi eta eragin handiko oinarria finkatu du administrazio organo eta beronen erregimenari dagokionez. Epaia honetan, Legeak Administrazio Kontseiluari, beronen erakuntzari buruz, ematen dizkion ahalmen osoak eta zabalak, ia mugagabeak, mugatuak geratzen dira. Beraz, Administrazio Kontseiluak beronen lehendakaria edozein unetan kentzeko duen ahalmen osoa,

6. Lehendakari karguaren irauteak ezin izango du administratzaile gisa berak duen karguaren irauteak baino handiagoa izan. Hura berrautagarria izango da.
7. Administrazio Kontseiluak hura edozein unetan ken dezake. Honen kontrako edozein xedapen ez idatzizat hartuko da.

